

IL ULERMEN PROBA • *Harry Potter - Sekretuen ganbera*

Izen-deiturak Taldea

> Markatu (X) erantzunak (45) test laukietan: E F edo A B C D

> Gaizki erantzundakoek ez dute negatiborik* (*E Fn zutabe bat osorik markatu ezean)

Zuzen		
Negatib.		
GUZT.		/ 45
Kalifikaz.		/ 10

- Hufflepuffen aurkako quidditch partidua bertan behera geratu zen Harryren erratza madarikatuta zegoelako.
- Aragog Hagriden hazitako armiarma erraldoia da, oihan debekatuan bizi dena.
- Hermioneri eraso egin ziotenean liburutegi alboan zegoen eta eskuan ispilu bat eta sugandilei buruzko orri puska bat zeuzkan.
- Tom Riddle Lord Voldemorten oinordekoa da.
- Korridorean Hermioneri eraso egin zioten gauean honakoa idatzi zuten: "SEKRETUEN GANBERA IREKI EGIN DUTE. OINORDEKOAREN ARERIOAK, KONTUZ!".
- Harryren erratza Slytherinen kontrako quidditch partidaren madarikatuta zegoen.
- Duelu Elkarteko lehen egunean Lockhartek Snapen kontra egin zuen eta *Expelliarmus* sorginkeriarekin Snaperi makila kendu eta garaitu zuen.
- Crabb eta Goyle Hermioneri sorginduzko txokolatezko pastel bana janzten zirela ziren.
- Harry eta Ronek zukuasko edabea hartzean Crabb eta Goyleren itxura hartu zuten baina ez haien ahotsa.
- Hermioneri zukuasko edan eta itxuraz aldatu ondoren ez zen komunikatu atera Norris andrea, atezainaren katuaren itxura hartu zuelako.
- Dobby Malfoy familiaren etxeko iratzoa da.
- Dobbyk Harryri bidalitako eskutitzak hartu zituen bere familiak eskatu ziolako.
- Harryri hainbat eskutitz idatzi zizkioten bere lagunek, baina Hedwig kaiola batean zegoenez, ez zitzaion bat ere heldu.
- Ronen aitak magia eskolan egiten du lan.
- Harry eta Ron berandu heltzen dira bederatzi eta hiru laurdeneko nasara eta trena galtzen dute.
- Hantura edabea beste pertsona bat bihurtzeko erabiltzen da.
- Weasley andreak ez du oso gogoko Harry, baina Ronen laguna denez, beraien etxean geratzen uzten dio.
- Harryk harreman oso ona du Gilderoy Lockhart maisuarekin.
- Hermioneri harreman oso ona du Gilderoy Lockhart maisuarekin.
- Hermioneri gelako ikaslerik hoberena dela esaten diotenean lotsatu egiten da.
- Gilderoy Lockhartek ematen dio baimena Roni atal debekatutik nahi dutena lortzeko.
- Harry eta Ron zigortzen dituztenean Harry Flichengana bidaltzen dute eta Ron Lockhartengana.
- Snapen Hufflepuffeko ikasleei buruz burla ikaragarriak egiten ditu bere eskoletan.
- Hermioneri zukuasko edabea hartzean txakur itxura hartzen du.
- Ronek ez du interesik Tom Riddleren egunerokoan, baina Harryk bai, eta egunerokoa berak gordetzen du.
- Ronen gurasoek bazekiten Harryren bila joan zela eta ados zeuden.

	E	F
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
17		
18		
19		
20		
21		
22		
23		
24		
25		
26		

27. Zergatik jasotzen du Harryk ministeriotik bidalitako oharpen ofizial bat?
- Ez du oharpenik jasotzen.
 - Dursleytarrei madarikazio bat botatzeagatik.
 - Harryk Airean Zintzilikatzeke Sorginkeria bat erabiltzeagatik.
 - Dobbyk Airean Zintzilikatzeke Sorginkeria bat erabiltzeagatik.
28. Zergatik sentitzen da triste Harry udan?
- Dursleytarrek mespretxatzen dutelako.
 - Gaixorik dagoelako.
 - Lagunen gutunik jaso ez duelako.
 - Zigortuta dagoelako.
29. Zergatik nahi du Dobbyk Harry Potterekin hitz egin?
- Etxekoei buruzko abisu bat eman nahi diolako.
 - Eskolari buruzko abisu bat eman nahi diolako.
 - Zoriondu nahi duelako.
 - Berarekin solasean ibiltzea gustuko duelako, Harryren antzera, bera bizi den etxean txarto tratatzen baitute.
30. Nola ateratzen da Harry Privet Driveko etxetik?
- Auto hegalaria batean.
 - Korrika, ihes eginez.
 - Hogwartsera doan trenean.
 - Bere erratz hegalarian.
31. Noiz konturatzen da Harry sugeekin hitz egin dezakeela, hau da, Parsel hizkuntza badakiela?
- Duelu Elkartean.
 - Hogwarts eskolako lehen mailan dagoenean.
 - Ez daki.
 - Aztia zela jakin baino lehenago.
32. Zein da Slytheringo quidditch jokalariek daukaten erratza?
- Nimbus 2000
 - Nimbus 2001
 - Nimbus 2005
 - Comet 2006

	A	B	C	D
27				
28				
29				
30				
31				
32				
33				
34				
35				
36				
37				
38				
39				
40				
41				
42				
43				
44				
45				

33.	<p>Weasley andreak loreontzi bat hartu beheko su gaineko apaletik eta barruan begiratu zuen.</p> <p>—Ia bat ere gabe geratzen ari gara, Arthur —esan zuen hasperen eginez—. Gehiago erosi beharko dugu gaur... Tira gonbidatuak lehenengo! Ea, Harry maitea, zu gure aurretik!</p> <p>Eta loreontzia eskaini zion.</p> <p>Guztiak berari begira zeuzkala ikusi zuen Harryk.</p> <p>—Eta ze-zer egin be-behar dut, bada nik? —galdetu zuen totalka.</p>	<p>Zer dago loreontzian?</p> <ol style="list-style-type: none"> Floo arrautzak daude, bidaiatzeko balio dutenak. Floo hautsak daude, bidaiatzeko balio dutenak. Gozokiak daude. Floo hautsak daude, itxura aldatzeko balio dutenak.
34.	<p>Langa jo eta atzeraka irten ziren bi orgak. Ronen kutxa danbateko ozenarekin erori zen lurrera, Harryren kasuan bera zegoen lurrean, eta Hedwigen kaiolak zoru distiratsuan botea egin eta bira batzuk eman zituen, hontza haserre bizian garrasika ari zela. Inguru guztian jendea begira geratu zitzairen harrituta eta hurbil zegoen zaintzaile batek oihu egin zien:</p> <p>—Baina zer demontre zabiltzate?</p> <p>—Orgen kontrola galdu dugu —erantzun zion Harryk arnasestuka, zutitu eta eskua saihetsera eramanez.</p>	<p>Zer gertatu zitzairen Harryri eta Roni?</p> <ol style="list-style-type: none"> Hogwartseko tren espresaren geltokira joatean ezin izan ziren pasatu. Tren geltokiko langarekin talka egin zuten oso arin zihoazelako. Orgekin jolasean ibiltzeagatik langa jo zuten. Hogwartseko bus geltokira joatean ezin izan ziren pasatu.

35.	Sustraien ordez, umetxo jaio berri, lohitsu eta oso itsusi bat atera zen lurretik. Hostoak burutik ari zitzaizkion hazten. Larruazala berde argia eta ñabartua zuen, eta garbi zegoen ahal zuen indar guztiaz negarrez ari zela.	a) Herbologiako eskolan iratxoak ontziz aldatzen ari dira. b) Botanika eskolan iratxoak lurretik ateratzen ari dira. c) Herbologiako eskolan Mandragorak ontziz aldatzen ari dira. d) Botanika eskolan Mandragorak lurretik ateratzen ari dira.
36.	—Denbora baten ondoren indarra galtzen du —erantzun zion Hermionek, eskua urduri astinduz—, baina formula lortzea oso zaila izango da. <i>Edaberik Ahaltsuenak</i> delako liburu batean zegoela esan zuen Snapek, eta hori liburutegiko atal debekatuan dago.	Hermionek aipatu du zukuasko... a) edabea, itxura aldatzeko balio duena. b) gozokia, itxura aldatzeko balio duena. c) edabea, indartsuagoa bihurtzeko balio duena. d) gozokia, indartsuagoa bihurtzeko balio duena.
37.	Erabat txundituta, Harryk luma berriro busti eta zera idatzi zuen: "Nire izena Harry Potter da". Une batez dir-dir egin orrian eta hitz horiek ere arrastorik utzi gabe barnerratu ziren. Baina, orduan, zerbait gertatu zen. Orriari izerdia atera balitzaio bezala, beak erabilitako tintaz, Harryk berak idatzi gabeko hitzak agertu ziren: "Kaixo, Harry Potter. Tom Riddle naiz".	Zertan saiatzen ari zen Harry? a) Harry Diagon kalekan erositako egunerokoan idazten. b) Harry Tom Riddleren sorginkeri liburuxkaren misterioa argitzen. c) Harryk Tom Riddleren egunerokoaren misterioa argitzen. d) Harry Tom Riddleren egunerokoan bere kezka eta nahiak idazten.
38.	—Maisu Dumbledore —esan zion presaka—, mesedez, eman diezaioket berriro eguneroko hori Malfoy jaunari? —Bai horixe, Harry —erantzun zion Dumbledorek lasai—. Baina bizkor ibili, ez ahaztu festa. Egunerokoa hartu eta arrapaladan irten zen bulegotik. Dobbyren min-oihuak entzuten zituen korridorearen kantoiaz bestaldean. Bizkor, plana ondo aterako ote zen bere artean galdezka, Harryk bere oinetako bat kendu, galtzerdi lokaztu zikina erantzi eta haren barrura sartu zuen egunerokoa.	Zergatik sartu zuen Harryk egunerokoa galtzerdiaren barruan? a) Draco Malfoyren aita izorratzeko. b) Dobby askatzeko. c) Dobby izorratzeko. d) Txantxa bat egiteko.
39.	Dudleyk, gizenaren gizenez ipurdia sukaldeko aulkiaren bi aldeetatik erortzen zitzaioela, irri bortxatua egin eta Harryrengana jiratuta, esan zuen: —Emadazu zartagina. —Hitz magikoa ahaztu zaizu —erantzun zion Harryk ozpinduta. Sinestezina izan zen esaldi horrek etxeko besteengan izan zuen eragina.	Nola hartu zuten Harryren erantzuna? a) Gaizki, bere botere kontuak aipatzeagatik, familiakoek ez dutelako magiari buruz ezer jakin nahi. b) Gaizki, Harryk <i>mesedez</i> hitzari erreferentzia egin arren, <i>magia</i> hitza ez dutelako entzun nahi etxean. c) Ongi, etxekoek gustuko dutelako magiari buruzko gauzak ikastea. d) Ongi, etxekoek Harry gogoko izan ez arren, heziketa ona erakusten duelako.
40.	Harryk ia-ia oihu egin zuen, baina isilik geratzea lortu zuen. Ohean zegoen izaki txikiak saguzarrak bezalako belarri handiak zituen, eta teniseko piloten tamainako begi berde irtenak.	Harryk izaki hura... a) lehenengo aldiz ikusi du, eta logelatik uxatu egin du. b) askotan ikusi du, baina ez du gustuko eta uxatu egin du. c) lehenago ere ikusia du, baina orduan ezagutu eta harekin hizketan geratu da. d) ez du inoiz ikusi, baina berarekin solasean geratu da.

41.	<p>—Ea, sartu autora –esan zion Ronek.</p> <p>—Baina Hogwartseko nire gauza guztiak... makila magikoa... erratza...</p> <p>—Non daude?</p> <p>—Eskailerapeko armairuan giltzaz itxita, eta ni ezin naiz gela honetatik irten...</p>	<p>Harryren bila auto hegalarian etorri da Ron...</p> <p>a) bere bi anaiekin, baina Hogwartseko gauzak etxekoek giltzapean dituztenez ezin da joan beraiekin.</p> <p>b) bere bi anaiekin; Harryri gauzak hartzen lagundu eta beraiekin doa.</p> <p>c) eta Harryri gauzak hartzen laguntzen diote, eta beraiekin doa.</p> <p>d) baina Hogwartseko gauzak etxekoek giltzapean dituztenez ezin da beraiekin joan.</p>
42.	<p>Isilka sukaldetik irten eta korridore estu batean aurrera, eskailera irregular batera iritsi ziren; sigisaga igotzen zen etxean gora. Hirugarren eskailera-buruan ate bat zegoen pixka bat irekia. Harryk begi-pare marroi distiratsu bat ikusi zuen handik berari begira, atea danba! itxi baino lehen.</p> <p>—Ginny –esan zuen Ronek–. Zuk ez dakizu zein arraroa den hori hain lotsati ikustea, normalean ez baita inoiz isiltzen...</p>	<p>Nork ez du hitz egiten?</p> <p>a) Ginnyk, Harry etxean dagoelako eta berarekin harreman txarra duelako.</p> <p>b) Ginnyk, Harry etxean dagoelako eta berarekin gustatuta dagoenez lotsa ematen diolako.</p> <p>c) Harryk, Ginny etxean dagoelako eta berarekin harreman txarra duelako.</p> <p>d) Harryk, Ginny etxean dagoelako eta berarekin gustatuta dagoenez lotsa ematen diolako.</p>
43.	<p>Zeruertz ilunaren aurrean, aintzira gaineko labarraren gainean, Hogwartseko gazteluaren irudia bistatu zuten urrutira bere dorre eta talaia askorekin.</p> <p>Baina autoa, dardarka, abiadura murrizten ari zen.</p> <p>—Ea, tira! –esan zion Ronek lausenguz, bolanteari astindutxo bat emanez–. Ia iritsi gara, goazen...</p> <p>Motorra kexu zen. Lurrun-zorrotada meheak irteten ziren kapotaren azpitik. Harry bere aukiararen artzei tinko helduta zegoen aintzirarantz zihozen bitartean.</p>	<p>Harry, Hogwartsera doan trena galtzean, auto hegalariaekin doa bertara...</p> <p>a) Ronekin eta, nahiz eta arazoak izan, ondo heltzen dira.</p> <p>b) Weasleytarrekin eta, nahiz eta arazoak izan, ondo heltzen dira.</p> <p>c) Ronekin, eta hara heltzean zuhaitz baten kontra jotzen dute.</p> <p>d) Weasleytarrekin eta hara heltzean istripu bat dute.</p>
44.	<p>—Zer gertatzen da hemen? Zer gertatzen da hemen? Malfoyren oihuak erakarrita, _____ aurreraino etorri zen jende artean bultzaka. Orduan, Norris Andrea ikusi zuen eta atzeraka egin zuen, izuikaraz aurpegiari helduta.</p> <p>—Nire katua! Nire katua! Zer gertatu zaio Norris andreari? –garrasi egin zuen.</p> <p>Eta haren begiak _____rengan finkatu ziren.</p> <p>—Zuk! –oihu egin zuen–. Zuk akabatu duzu nire katua! Zuk hil duzu! Eta nik zu hilko zaitut!</p>	<p>a) Argus Flichek uste du Malfoyk hil duela bere katua.</p> <p>b) Gilderoy Lockhartek uste du Malfoyk hil duela bere katua.</p> <p>c) Gilderoy Lockhartek uste du Harryk hil duela bere katua.</p> <p>d) Argus Flichek uste du Harryk hil duela bere katua.</p>
45.	<p>...irakasle batek izenpeturiko baimen-oharra behar zen.</p> <p>—Zaila izango da _____ zertarako nahi dugun azaltzea –esan zuen Ronek–, edabeetakoren bat egiten saiatzeko ez bada.</p> <p>—Uste dut –esan zuen Hermionek– teoria bakarrik interesatzen zaigula adierazteko modua egiten badugu, agian aukera bat izango dugula...</p> <p>—O, tira, ez dago irakaslerik hori sinetsiko dizunik –esan zion Ronek–. Ondo inozoa izan behar du horretarako...</p>	<p>Harry, Ron eta Hermione, irakasle baten baimena lortzen saiatuko dira. Zertarako behar dute?</p> <p>a) Liburutegiko edozein liburu hartzeko.</p> <p>b) Liburutegiko atal debekatutako liburu bat hartzeko.</p> <p>c) Material batzuk hartzeko.</p> <p>d) Material debekatu batzuk hartzeko.</p>